

HUHEZIKo bi ikasle Bollywooden izan dira, karrera amaierako proiektua prestatzen

2008/10/16

Nerea Ruiz de Azua eta **Naroa Zalakain** Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten ari dira Huhezi fakultatean, 4. maila. Joan den apirilean, hasi zirenean pentsatzen zertaz egin karrera amaierako proiektua, erabaki ausarta hartu zuten: dokumental bat egitea **Bollywood** zine estudioen gainean, Indiako zinegintzako meka. **Bollywood** Mumbai hirian dago, eta bera da Indiako zine ekoizlerik handiena, eta munduko handienetako bat.

Galdetzerakoan zergatik aukeratu zuten gai hori, ez dute zalantzarik: "Fakultateak eskaintzen zizkigun aukeretatik kanpo, bilatu nahi izan genuen bat, gure gustukoa, nahiz eta fakultateak berak eskaini ez". Joan aurretik, badaezpada, harremanetan jarri ziren hango zine eskola batekin, ikusteko haiengandik laguntzarik jaso zezaketen. Horrela bada, dena prest zutenean, ekainaren bukaeran, Indiara egin zuten, eta **hantxe igaro dute uztaila**: hiru aste Mumbai hirian, eta beste bat Indiako Iparraldean bidaiatzen, turismo egiten.

Bollywoodeko zine estudioetan ezin izan ziren sartu filmatzera, baina **estra moduan egin zuten lan film batean**, lan interesgarria hango giroaren berri izateko. Horrezaz gain, **film baten estreinaldian izan ziren**, hango zine eskolak gonbidatuta, eta han bai hartu zituzten irudiak eta egin zituzten elkarrizketak. Hango irudiekin eta Mumbain barrena hartutakoekin (hainbat zinetoki bisitatu zituzten, eta zine eskola bat), hortxe dute material gordina dokumentala egiteko. Bollywood, eta Mumbai oro har, **kaos handi bat** iruditu zitzairen. Hala ere, **pozik itzuli dira** etxera, esperientzia aberatsa bizi izan dutelako.

Donostiako Zinemalditik bueltan --Nereak eta Naroak zinea dute maite-- , grabatutako guztia ikusten hasi dira, eta bueltak ematen Mumbain bertan zirriborratutako gidoiari, dena ondo badoa **datorren otsailean aurkeztuko dute-eta karrera amaierako proiektua**, Huhezin bertan.

